

PRENTSA OHARRA

Urduñako udal-hilerrian "Duintasunaren kolunbarioa" eraikitzeako obren lizitazioa argitaratu da

- ***Urduñako kontzentrazio esparruan eta espetxe zentrolean hildako pertsonak nahiz Gerra Zibileko eta frankismoaren biktimak omenezko espazioa izango da, hain zuzen.***

Urduñan, 2021eko abuztuaren 27an.- Urduñako Udalak **lizitazio publikora** atera ditu udal-hilerrian "Duintasunaren kolunbarioa" eraikitzeako lanak. Urduñako kontzentrazio esparruan eta espetxe zentrolean hildako pertsonak nahiz Gerra Zibileko eta frankismoaren biktimak omenezko kolunbarioa izango da, hain zuzen. Proiektuak aurkezteko epea **irailaren 13ko 14:00etan amaituko da.**

Lizitazioko lan horiek burutzeko, **72.720,52 euroko (BEZ barne) aurrekontua** dago, **Gogora** Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuak finantzatuta.

Besteak beste, hilobitik atera zituzten Gerra Zibileko biktimen gorpuak gordetzeko espazioa diseinatuko da, gerran eta frankismoan bidegabeki hil ziren pertsonak duintzeko helburuarekin.

Gogoratu beharra dago 1937tik 1941era Urduñako kontzentrazio-esparruan eta hiriko espetxe nagusian faxismoaren aurka borrokatzeagatik espetxeratu zituzten pertsonen buruzko informazioa bilatzen ari diren familiei laguntzeko zerbitzua eskaintzen duela Urduñako Udalak.

Kolunbarioari dagokionez, 2017ko urtarrilean Elgoibarren inauguratutako kolunbarioa da proiektu aitzindaria, identifikatu ezin izan diren Gerra Zibileko eta Frankismoko biktimen duintasunaren omenezko gunea. Olasoko hilerriaren ondoan dago, eta 44 hobitik ateratako 57 pertsonen gorpuak jasotzen ditu.